

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai martxoaren 6an

**Lygia Clark. Pintura eremu
experimental gisa, 1948–1958**

Lygia Clark.
Pintura eremu experimental gisa, 1948-1958

- Datak: 2020ko martxoaren 6tik urriaren 25arte
 - Komisarioa: Geaninne Gutiérrez-Guimarães, Guggenheim Bilbao Museora atxikitako arte-arduraduna, Solomon R. Guggenheim Museum and Foundation
-
- Aurtan, ehun urte beteko dira Lygia Clark jaio zenetik. Erakusketa honek haren lehenengo sorkuntza-lanak dakarzkigu, eta arreta berezia eskainiko dio, nazioartean, gerraosteko Latinoamerikan ezinbestekoa izan zen artista honi.
 - Clarkek «eremu experimental» gisa ikusten zuen pintura, 1956an hitzaldi garrantzitsu batean esan zuen moduan; pintura tradizionalaren mugak zabaldu nahi zituen, eta hura berriro definitu.
 - Erakusketak hasierako lan figuratiboaren hainbat obra adierazgarri dakarzkigu, baina baita Clarkek hasierako urte haietan sortu zituen sail nagusietako pinturak ere; hortaz, haren ibilbide artistikoaren lehenengo hamarkadaren funtsezko ikuspegia eskaintzen du.

Guggenheim Bilbao Museoak *Lygia Clark. Pintura eremu experimental gisa, 1948-1958* aurkezten du. Lygia Clark (Belo Horizonte, Brasil, 1920–Rio de Janeiro, Brasil, 1988) abstrakzioaren aitzindaria izan zen, eta XX. mendearen bigarren erdialdeko funtsezko artista bat. Erakusketak beste ikuspegi batetik aztertzen ditu artistaren trebakuntza-urte erabakigarriak, 1948tik 1958ra bitartekoak. Izan ere, urte haietan, figurazioaren eta abstrakzioaren artean esperimentatu zuen, helduaroko sorkuntza-lanak definituko zituen hizkuntza bisual ahaltsua egituratze aldera. Erakusketak hasierako lan figuratiboaren hainbat obra adierazgarri dakarzkigu, baina baita Clarkek hasierako urte haietan sortu zituen sail nagusietako pinturak ere; hortaz, haren ibilbide artistikoaren lehenengo hamarkadaren funtsezko ikuspegia eskaintzen du.

Clarkek «eremu experimental» gisa ikusten zuen pintura, 1956an hitzaldi garrantzitsu batean esan zuen moduan; pintura tradizionalaren mugak zabaldu nahi zituen, eta hura berriro definitu. Artean aritu zen, nahiz eta prestakuntza ofizial espezifikorik ez izan; Rio de Janeiroko artista-giroan integratu zen 1940ko hamarkadaren amaieran; eta mugimendu oso garrantzitsuetan parte hartu zuen 1950eko hamarkadan, hala nola arte konketuarenean eta abstrakzio geometrikoarenean. Erakusketak Clarken bilakaera aztertzen du, historikoki egituratutako hiru ataletan banatuta: «Aurreneko urteak, 1948–1952», «Abstrakzio geometrikoa, 1953–1956» eta «Formaren aldaketak: espazioa modulatzeko, 1957–1958». Bloke bakoitzak Clarken ideia esanguratsuenak aurkezten ditu, eta zehatz-mehatz islatzen du haren garapen artistikoa, obra jakin batzuen bidez.

Aurten, ehun urte beteko dira Lygia Clark jaio zenetik. Nazioarteko oihartzuna duen erakusketa honek haren lehenengo sorkuntza-lanak dakartzigu, eta arreta berezia eskainiko dio gerraosteko Latinoamerikan ezinbestekoa izan zen artista honi. Museoak eskerrak eman nahi dizkie Rio de Janeiroko Lygia Clark Kultur Elkarteari eta artistaren familiari, asko lagundu baitute erakusketa hau prestatzen.

ERAKUSKETAREN LABURPENA

Aurreneko urteak, 1948–1952

Artista gisa aritu zen lehenengo etapan, Lygia Clarkek gai tradizionalei heldu zien ikatz-marrazkien eta olio-pinturen bidez; besteak beste, erretratuei, natura hilei, etxearen edo estudioaren barrualdeei, paisaiari eta arkitekturari. Lan horiek ongi azaltzen dute nola tratatu zituen Clarkek haren hasierako lanetan lerroa, forma, kolorea eta espazioa; izan ere, tratamendu hori ondorengo sorkuntza-lanen oinarri garrantzitsua bihurtuko zen. Clarkek Roberto Burle Marx eta Zélia Ferreira Salgado artista brasildarrendandik jaso zuen prestakuntza ez-akademikoak ere eragina izan zuen haren lehenengo lanetan; kromatismo autoktonoa dute, estilizatuak dira, eta gainazal laua dute.

Clarkek abstrakzioaren ikuspegi berezi hura garatzen jarraitu zuen Parisen egon zen aldi labur hartan, 1950etik 1952ra; han, Fernand Léger eta Árpád Szenes maisu modernoekin pintura ikasten aritu zen denboraldi batez (Szenes erbesteratuta bizi izan zen Maria Helena Vieira da Silvarekin Rio de Janeiron, 1940tik 1947ra bitartean). 1952tik aurrera, Clarkek ikatz-marrazkiak, arkitekturen marrazkiak eta geometria prismatikoen eta forma triangeluar zorrotzen konposizio kromatiko modularrak egin zituen. Rio de Janeirora itzuli aurretik, 1952ko ekainean haren banakako lehenengo erakusketa antolatu zen Pariseko Institut Endoplastique institutuan; litekeena da erakusketa hartan atal honetako zenbait obra jarri izatea ikusgai.

Abstrakzio geometrikoa, 1953–1956

1952ko abuztuan Lygia Clark Rio de Janeirora itzuli zen. Ordurako, arte konkretua garatzen hasia zen Brasilen, lehenik 1952an São Paulon sortutako Ruptura taldearen bidez, eta, gero, 1954an Rio de Janeiron sortutako Frente taldearen bidez. Bigarren talde horretan sartu zen Clark, bere garaikide batzuekin batera; alegia, Aluício Carvão, Willys de Castro, Hélio Oiticica, Lygia Pape eta Ivan Serpa. São Pauloko taldeak bezala, Frente taldeak ere Europako arte konkretuaren ideologiak xurgatu zituen, eta bere egin zituen forma puruaren eta objektibotasunaren printzipio zorrotzak. Printzipio horiek naturalismoari eta figurazioari kontrajartzen zitzaizkion, zeinak nagusi baitziren lehenengo garaiko modernitate brasildarrean. Bereziki, Clarkek estetika geometriko berezia bereganatu zuen, Brasilen abstrakzio geometriko modernoak garrantzia hartu ahala, eta taldearen 1954tik 1956ra bitarteko taldeko erakusketetan parte hartu zuen.

Erakusketaren atal honetan, Clarkek 1953an sortu zituen konposizio geometriko zehatzak daude, baita planoaren arau espazialak zalantzan jartzera eramane zuten beste sail garrantzitsu batzuk ere; hala nola, *Lerro organikoaren aurkikuntza* (1954) eta *Markoa hautsiz* (1954). Gainera, atal honetan, hiru eredu arkitektoniko daude ikusgai beira-arasetan; hots, *Barnealdea lanerako maketak* (1955), artistak espazio dinamikoari buruz

pentsatzen zuenaren isla direnak. Hein batean irakasle izan zituen Fernand Léger eta Roberto Burle Marx artisten eraginez, maketa horiek agerian jartzen dituzte Clarkek artearen eta arkitekturaren arteko erlazioari buruz egin zituen ikerketak, zeinak *Gainazal modulatuak* (1955) saila osatzen duten egitura lau, plano eta modular dun asto-pinturetan islatu baitziren gero. 1956an, Clarkek kromatismo biziagoa eta askotarikoagoa erabiltzen zuen jada: konposizio abstraktuak egiten zituen, eta sigi-sagako formak eta forma diagonalak, angelu zorrotzak eta eredu erritmikoak irudikatzen.

Formaren aldaketak: espazioa modulatzeko, 1957–1958

1950eko hamarkadaren amaiera aldera, Lygia Clarkek forma piktorikoari buruzko ikerketa zehatz eta metodiko bati ekin zion, eta konposizio monokromatiko handi batzuk sortu zituen plano positibo eta negatiboetan oinarrituta. Forma lineala espazio multidimentsional batean nola irudikatu zitekeen aztertu zuen, planoaren geometria manipulatu eta deformatze aldera.

Atal honetan, obra bidimentsionalen hiru sail garrantzitsu daude ikusgai, 1957an eta 1958an sortuak: *Planoak gainazal modulatuak* (1957–58), *Espazio modulatuak* (1958) eta *Gainazal modulatuak* (1957–58) sailaren beste bertsio bat. Pieza horiek guztiek agerian jartzen dute artista gai zela forma geometriko zuri-beltzez osatutako askotariko konfigurazio linealak sortzeko, seriean. Pieza horietako batzuk 1968ko Veneziako Bienalean jarri ziren ikusgai. Horrez gain, collage batzuk ere badaude, zeinek lerro gurutzatuen eta kontraste kromatikoaren bidez sortzen diren lerroaren, kolorearen eta espazioaren aldakortasuna ikertzen baitute.

Lygia Clarken biografia

1920an jaio zen Lygia Clark, Belo Horizonten (Minas Gerais, Brasil), eta, 1940ko hamarkadaren amaieran, prestakuntza artistiko informala eman zioten Rio de Janeiroko Roberto Burle Marx eta Zélia Ferreira Salgado artista brasildarrek. 1950ean, Parisera joan zen, Fernand Léger eta Árpád Székelyk maisu modernoekin ikasten jarraitzeko. 1952an egin zuen lehenengo erakusketa, *L. Clark-Ribeiro*, Pariseko Institut Endoplastique institutuan, eta, han, lan bidimentsionaletan abstrakzioarekin eta eraikuntza-formekin egindako lehenengo esperimenduak aurkeztu zituen. Urte beraren amaieran Brasilerara itzuli zenean, banakako lehenengo erakusketa egin zuen, *Lygia Clark 1950-1952*, Rio de Janeiroko hezkuntza-ministerioan (Ministério da Educação). Hasten ari zen artista gisa ikusi zen Clark, eta herrialdeko erakusketa kolektibo garrantzitsuetan parte hartzen hasi zen; besteak beste, *Exposição Nacional de Arte Abstrata* (1953), lehenengoa, eta São Pauloko Bienala (1953).

1954an, Grupo Frente izeneko talde abangoardistarekin bat egin zuen, artista garaikide batzuekin batera (besteak beste, Aluício Carvão, Hélio Oiticica eta Lygia Pape), eta 1956ra bitartean taldeak egin zituen erakusketa iraultzaileetan parte hartu zuen. Abstrakzio geometrikoaren printzipioei jarraikiz, aldi hartan egin zituen lanetan zehatz-mehatz irudikatu zituen forma geometrikoak, kolore biziak eta ordena-sentsazioa. Beste erakusketa garrantzitsu batzuetan ere hartu zuen parte; esaterako, *Salão Nacional de Arte Moderna* (1956 eta 1957), *Exposição Nacional de Arte Concreta* (1957), lehenengoa, eta São Pauloko Bienala (1957). 1950eko hamarkadaren amaiera aldera, Clarken kezka estetiko eta filosofikoek neokonkretismoarekin bat egin zuten. Neokonkretismoa mugimendu artistiko brasildar bat izan zen; 1959an sortu zen, eta abstrakzio konkretuaren izaera inbertsonala eta objektiboa baztertzeko. Neokonkretistek artearen eta bizitzaren artean kokatzen

zituzten beren obrak, eta esfera publikoko esperientzia gisa. Clark fundatzaileetako bat izan zen, eta 1959ko *Exposição Neoconcreta* erakusketan parte hartu zuen; obra tridimentsionalak sortu zituen, eta, haien bidez, ikusleek artelanean modu aktiboan parte har zezaten sustatu.

1964tik 1970eko hamarkadaren hasierara arte, Clark Parisen bizi izan zen, eta obra ezohiko samar batzuk sortu zituen. Obra horiek Pierre Fédida psikiatrarekin luzaroan egindako psikoanalisiarekiko paralelo egin zituen, zeinak arte-forma terapeutiko bat bazegoela pentsatzera eraman baitzuen. Ikerketa horiekin batera, gertaera iraultzaileak izan ziren mundu osoan; adibidez, 1968ko maiatzean Frantzian izandako gertakariak eta Nova Objetividade (objektibotasun berria), Tropicália (tropikalismoa) eta beste mugimendu batzuetan ziharduten artista brasildarren belaunaldi berri bat. Clarkek aldi horretan egin zituen obrek gorputza begien, belarrien eta sudurraren bidez estimulatzeko duten elementuak dituzte, zentzumenak integratzeko modu gisa, baina ikusmenari lehentasuna eman gabe. Denboraldi horretako ikerketa artistikoak alderdi terapeutikoan jarri zuen arreta, eta kontzientzia subjektiboa eta gorputzarena aktibatu nahi zituen. 1978 eta gero, ibilbideko azken urteetan, Clarkek psikoanalisian jardun zuen soil-soilik. 1988an hil zen, Rio de Janeiron.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren parte gisa, eta BBK-ren babesa duen *Artez busti* programaren barruan, bisitariek Lygia Clarken ibilbideari buruzko informazio osagarria jasoko dute hirugarren solairuko hezkuntza guneetako batean. Alde batetik, Latinoamerikako 1940ko eta 1950eko hamarkadetako ingurune artistikoa testuinguruan kokatuko da, eta, bestetik, Clarkek gorputzaren eta adimenaren arteko ikerketaren eta esperimentazioaren garapenean egin zuen lan aitzindaria azalduko. Artearen eta terapiaren artean egindako lan hori, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan garatu zuen. Proiektatuko den ikus-entzunezkoan, ahaideen eta *O Mundo de Lygia Clark* elkarteko arduradunen lekukotzak entzun ahal izango dira, eta, gainera, hezkuntza gunean, haren objektu sentsorialetako batzuk egongo dira, bisitarien artean esperientziaren alderdi interaktiboa indartzeko asmoz.

Gainera, erakusketarekin erlazionatutako jarduera hauek egingo dira:

Mahai-ingurua: *Lygia Clark. Pintura eremu experimental gisa, 1948-1958* (martxoak 4)

Lygia Clarken obrari buruzko mahai-inguru honetan, arte latinoamerikar moderno eta garaikidearen arloko aditu garrantzitsuek hartuko dute parte. Horrela, hautatutako obretan eta erakusketaren hiru atal historikoetan oinarrituta, Clarken ibilbide artistikoko lehenengo aldiari buruz arituko dira, besteak beste, Geaninne Gutierrez-Guimarães, Guggenheim Bilbao Museora atxikitako arte-arduraduna eta erakusketaren komisarioa; Adele Nelson, Texaseko Unibertsitateko (Austin) Artearen Historiako irakasle elkartua eta Ikus-entzunezko Ikasketa Latinoamerikarren Zentroko zuzendari laguntzailea; eta Paulo Miyada, Tomie Ohtake Institutuko arte-arduraduna eta São Pauloko 34. Bienalaren arte-arduradun laguntzailea.

Hausnarketa partekatuak*

Museoko Arte Ardurako eta Hezkuntzako profesionalek eskainitako bisitaldi eskusiboak; erakusketa honetako edukiari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte.

Arte-arduraren ikuspegia: Lygia Clark (martxoak 6). Geaninne Gutiérrez-Guimarães, Guggenheim Bilbao Museora atxikitako arte-arduraduna eta erakusketaren komisarioa.

Funtsezko kontzeptuak: Lygia Clark (apirilak 22). Marta Arzak, Museoko Hezkuntzako eta Interpretazioko zuzendariordea.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Azaleko irudia:

Lygia Clark

Biolontxelo-jotzailea (O Violoncelista), 1951

Olio-pintura mihise gainean

105,5 x 81 x 2,7 cm

Bilduma pribatua

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.23

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsak erabiltzeko irudiak
Lygia Clark. Pintura eremu experimental gisa, 1948-1958
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (<https://prentsa.guggenheim-bilbao.eus/eu/>) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Lygia Clark. Pintura eremu experimental gisa, 1948-1958* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2020ko martxoaren 6tik urriaren 25era egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Horretarako, artistaren estudioak maketa onartu beharko du. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektroniko egokien bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

Lygia Clark
Biolontxelo-jotzailea (O Violoncelista), 1951
Olio-pintura mihise gainean
105,5 x 81 x 2,7 cm
Bilduma pribatua
© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea
X.2017.23



Lygia Clark

Konposizioa (Composição), 1951


Olio-pintura mihise gainean

105 x 81 cm

Bilduma: Patricia Phelps de Cisneros

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.17



Lygia Clark

Eskailera (Escada), 1951

Olio-pintura mihise gainean


100,4 x 74 cm

Acervo Museu de Arte Brasileira – MAB FAAP, São Paulo

Argazkia: Fernando Silveira

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.20



Lygia Clark

Titulurik gabea, 1952

Olio-pintura mihise gainean

54,5 x 81,5 cm

João Sattamini Collection, honi maileguz emana: Museu de Arte Contemporânea de Niterói

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2019.187



Lygia Clark

Konposizioa (Composição), 1953


Olio-pintura mihise gainean

116,7 x 80,7 x 2,5 cm

Bilduma: Patricia Phelps de Cisneros

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.60



Lygia Clark

Konposizioa (Composição), 1953

Olio-pintura mihise gainean

89 x 106 cm

Bilduma: MAM. Dohaintza: Sul América Seguros

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.63



Lygia Clark

Titulurik gabea, 1954

Olio-pintura mihise gainean

56 x 42 cm

João Sattamini Collection, honi maileguz emana: Museu de Arte Contemporânea de Niterói

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2019.192



Lygia Clark

Gainazal modulatua, 5. zk. (*Superfície modulada no. 5*), ca. 1955

Laka zur gainean

116 x 72 cm

João Sattamini Collection, honi maileguz emana: Museu de Arte Contemporânea de Niterói

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2019.194



Lygia Clark

Titulurik gabea, 1956

Olio-pintura mihise gainean

113,5 x 79,5 cm

Bilduma pribatua, São Paulo

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.93



Lygia Clark

Gainazal modulatua (*Superfície modulada*), 1955

Pintura industrialala Eucatex gainean

62 x 86 cm

Bilduma: Ana Eliza eta Paulo Setúbal

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.82



Lygia Clark

Gainazal modulatua, 20. zk. (*Superfície modulada no. 20*), 1956

Pintura industrialala zur gainean

60 x 120,5 cm

Fundação Edson Queiroz Collection, Fortaleza

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.90



Lygia Clark

Gainazal modulatua (Superfície modulada), 1957

Pintura industrialak zur gainean

49,5 x 94,5 x 8 cm

Bilduma: Marcos Ribeiro Simon

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.96



Lygia Clark

Planoak gainazal modulatuan (Planos em superfície modulada), 1958


Polimero-pintura sintetikoa zur gainean

100 x 150 x 7 cm

Bilduma pribatua, Rio de Janeiro

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.111



Lygia Clark

Kontra-erliebea (Contra relevo), 1959

Pintura industrialak zur gainean

140 x 140 x 2,5 cm

Bilduma: Jones Bergamin, Rio de Janeiro

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.56



Lygia Clark

Planoak gainazal modulatuan, B saila, 7. zk., 1. bertsioa (Planos em superfície modulada, série B, no.7, versão 1), 1958

Pintura industrialak zur gainean

100 x 100 cm

Bilduma: Rose eta Alfredo Setúbal

© Eskaintza: «The World of Lygia Clark» kultura-elkartea

X.2017.108

